

‘V. Bermeo Uria’ Narrazio Lehiaketaren sariak banatuko dituzte gaur

Sari banaketa Nestor Basterretxea aretoan izango da, 12:00etan; finalista guztiek diploma bana jasoko dute.

Maite Zabalondo

‘V. Bermeo Uria’ Narrazio Lehiaketaren sari banaketa egingo dute gaur Nestor Basterretxea aretoan, 12:00etan.

Bermeoko Joxe Miel Barandiaran Udal liburutegiak antolatutako lehiaketa da, eskoletako ikasleen artean euskaraz irakurtzeko eta idazteko zaletasuna lantzeko eta sustatzeko helburuagaz.

Bermeoko ikastetxe guztietako zortzi eta hamazortzi urte bitarteko ikasleek parte hartzen dute ‘V. Bermeo Uria’ Narrazio Lehiaketan.

Ikasleen parte-hartzea

Liburutegiak ikastetxeetako irakasleekin elkarlanean bultzatutako ekimen kulturala da. Ikasturte hasieran lehiaketaren arautegia adosten dute eta hortik abiatuta, ikasleek euren narrazioak idazten dituzte.

Gero narrazioak irakasleen esku geratzen dira eta horiek maila bakoitzeko aukeraketa bat egiten dute. Era berean, ikasleek eurek ere nolabait epaile lana egiten dute, beste ikastetxeetako maila berdineko ikasleen lanak irakurri eta puntuatuz. Marije Bidaguren liburutegiko arduradunaren esanetan, politena da gazteenek eurek epaile moduan aritzeko aukera dutela, hautaketaren lehen fase batean, beste ikasle batzuen ipuinak irakurritz.

Ikasleek epaimahaikide ere izateko aukera dute; zentro guztietako jendea aukeratzen dute.

Aurtengo epaimahaia honako hauek osatzen dute: Shanti Munitiz idazle bermeotarra eta Kokotxa kultur taldeko kidea; Aritz Abaroa institutuko epaimahaikidea eta ‘I. Bermeo Uria’ Narrazio Lehiaketaren batxillergoko irabazlea; Garazi Agirre Eleizalde ikastolako epaimahaikidea; Eneko Anparan Karmeldar ikastetxeko epaimahaikidea eta, azkenik, Marije Bidaguren liburutegiko arduraduna. Azken batean horiek aukeratzen dituzte maila bakoitzeko irabazleak eta finalistak.

Sariak

Irabazle eta finalista guztiek diploma bana jasoko dute. Horrez gain, irabazleek herriko denda batean liburuak eta ikas materiala erosteko diru-txartel bat jasoko dute, eta liburutegira heltzen zaizkien zenbait opari (MP3...) eta liburu sortak ere oparituko dituzte.

Baina sariaren zati handi bat ipuina argitaratzea izango da. Alde batetik, ipuin irabazleak liburutegiaren webgunean argitaratuko dituzte, eta bestetik, liburuxka bat kaleratuko dute, urtero moduan, irabazleen ipuinekin. Hain zuzen, orain kaleratu dute iazko irabazleen ipuinekin osatutako liburuxka, ikastetxeetan banatuko dutena. Guztira, liburuaren 1.400 ale banatuko dituzte.

Ale batzuk Euskal Herriko liburutegietan eta eskoletan banatuko dituzte, gazteek egindako ipuinak irakurri gura dituztenentzat.